Erref. kodea: LAF-220-192 [76]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Saint-Pierre, Jean: *Ahatsa-ko intzaurra,*

acpt
ESKUALDUNA 1926-06-04 à composer

S. Pier

## AHATSA-KO INTZAURRA

Bazela banakien, Eskualdunean irakurturik: bainan halako hedadura eta tokia nork behar zuen amestu? Gain hartarik, mendien inguru bat choragarria, Garaziko bazterrak, herriak zoin bere chokoetan jarriak, beren jauntzi churietan.

Igande arratsaldeari buruz, lo zagon intzaur ondoa, iguzki dorpe bat bizkarrean: betbetan, ezkila dangan hasirik, bidechka eta chendra guzietan gaindi jendea biltzen da pur. pur pur, erlea bezala, itzalpe nasaiaren hegaletara: Mendibe, Lekumberri, Esterençuby, Eyheralarre, Çaro, Aincile, Donazaharre, Doniane, Jaxu, Lakarra, Ainhize, Duzunaritze, zer bilkura! zer eskualdun begiak!

Handiagorik egin ditake; gochoagorik edo eskualdunagorik nekez.

Gehiago dena, bigarren aldia du Hergaray-ko Katolikoak bereganatzen dituela intzaur ondo horrek, ez baitago hortan gelditzekoa.

Oren bat eta erdiz zer entzun duen baluke nori erran.

Egun berean, iparreko hiri handi batean bildu dira lauetan hogoi mila gizon; hamabortz mila Clermont-Ferrand-en; hamabi mila Lons-le-Saulnier-en: heiek eta guk lan bera egin dugu.

Itzea sartzen ari da, holakoeri esker, emeki emeki kasko gogorrenetan; ez da gehiago nehor menturatzen erraitera

legea lege dela; Herriotek berak aithortua du edo zoin legeri hezurrak trenka ditazkela: gu ez gira tzarreri baizik aiher.

Itzea sartzen ari da: behazue igandean zer solas erran dituzten Paueko bilkuran Ybarnégaray-ekin juntatu diren bi deputatuek, Barthélémy eta Bérard-ek.

Barthélémy-k erran du:

"Dans l'état actuel des choses il n'y a qu'une seule solution de liberté: liberté totale, liberté absolue, liberté complète. L'Église doit être libre et respectée."

Ez ginen hortan duela bi urthe!

Bérard-ek erran du: "Il y a une laïcité qui est un dogmatisme agressif, une église contre l'Église, une église sans liturgie et sans poésie, une église sans sacrements et sans mystères, une église sans "Magnificat!" et sans "Dies iræ". Triste église.

Framazoneriaz gu bezalatsu mintzo. Zerbeit da hori, egungo egunean. Zerbeit, bainan ez aski.

Framazonek egin legeak khen. Orduan izanen gira ados. Hortaratzeko badugu zer egin.

Ez dea hala, Paris adichkide maitea? Erran diozute, zuk, garbiki, Hergaraitarrer Jainkoa haurreri khendu ziotela eskoletarik: erran diotegu satorrek egun zer lan ari duten moldatzen, haurrak Jainkoari khendu ondoan burrazperi khentzeko. Gizon argituak bi itsu balio ditu. Behar litazke, Eskual-Herrian, Ahatsan bezalako hamar intzaur ondo

4/6/1926

FSC
MIXTO
FSC® C001636